



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jagoba Manterola Ruiz  
Carmelo Ayoroa Hualde  
Marcelino Bazterrica Alchu  
Pedro José Alchu Ariztegui  
María Milagros Erreguerena Vera

2015eko apirilaren 27an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

## **2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.**

1. I.P.P.k lizentzia eskatu zuen, 2 poligonoko 925 partzelara doan bidea konpontzeko. Ingurugiroaren gaineko txostena aldekoa izan da. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea P. andreari, Ingurugiroa Aztertze Atalak emandako txostenak jartzen dituen neurriak betetzeko baldintzapean. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 910 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 27,30 euro.

2. S.P.A.k lizentzia eskatu zuen, *Argiñenea* etxeko teilatua zaharberritzeko eta fatxadak pintatzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea P. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 5.360 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 160,80 euro.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

## **3. OIHAN ENKANTEA.**

2015eko martxoaren 23an egindako bileran erabaki zuen kontratazio-mahaiak, *Totolaz* eta *Mirukabi* parajeetako 2 egur loteak esleitzea behin-behineko.

Akta jendaurrean jarri zen, “sesta”ren ondorioetarako, eta ez zuen inork proposamen berririk aurkeztu.

Aipatutakoak kontutan hartuz, aho batez erabaki da:



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

1. *Totolaz* parajeko lotea (460 laritz japoniar) behin-betiko esleitzea PAKO ALTZURI, S.L.ri, ZAZPI MILA BEDERATZI EHUN ETA ZAZPI EURO ETA HOGEI ZENTIMOTAN (7.907,20 €), gehi dagokion BEZa.

2. *Mirukabi* parajeko lotea (353 haritz amerikar) behin-betiko esleitzea ZABALA TIMBER, S.L.ri, ZAZPI MILA HIRU EHUN ETA HAMAR EUROTAN (7.310,00 €), gehi dagokion BEZa.

3. Akordio hau jakinaraztea adjudikatariei, Nafarroako Gobernuari eta proposamenak aurkeztu zituzten guztiei.

#### **4. BIDE BERDEA.**

Aurrekariak

Lehenengoa.- Bertizeko Turismo Partzuergoak, likidazio batzordearen bitartez, Enderlatsa eta Doneztebe arteko eremuan dagoen Bidasoako Bide Berdearen jabetza eta kudeaketa Cederna-Garalur Elkarteari emateko asmoa dauka, administrazio espedientean zehazten diren eduki eta baldintzetan.

Bigarrena.- Udal hau Bertizeko Turismo Partzuergo likidatuaren partaidea da eta egokia ikusten du, Bide Berde horren mantentze eta kudeaketa gastuei aurre egingo diela ziurtatzea, baita lagapenaren aurretik egin ziren zenbait gastu (desjabetzeak...) ordainduko direla ziurtatzea ere. Horrela, kudeaketa eta subrogazio honek ez dio inolako kosturik suposatuko Cederna-Garalur Elkarteari.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Udal honek aitortzen du, behartuta dagoela Bidasoako Ibilbide Berdearen zati haren mantentze eta kudeaketa gastuei aurre egitera, baita lagapenaren aurretik egin ziren zenbait gastu ordaintzera ere (desjabetzeak...). Horrela, kudeaketa eta subrogazio honek ez dio inolako kosturik suposatuko Cederna-Garalur Elkarteari, administrazio espedientean zehaztuta dagoen moduan.

2. Honako hau izanen da behar horren araubide juridikoa:

- Ordainketak zuzenean egitea; Cederna-Garalurrek ez du inolako ordainketarik aurreratu beharko.
- Agiria sinatzea. Udaleko lehendakaria baimentzen da, akordioa zehazten duen agiria sinatzeko. Agiri hori publikoa izan daiteke.
- Hitzarmenaren administrazio-izaera onartzea. Ondorioz, zorra egonez gero, administratiboki erreklamatzeko aukera egonen da.

#### **5. MALERREKAKO EGUNA.**

*Malerrekako Eguna* ospatuko da Elgorriagan, maiatzaren 30ean. Datorren urtekoa Iturenen ospatzea proposatu diotela esan du alkateak. Aho batez erabaki da Iturenen egitea 2016ko jaia.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

## **6. HAUTESKUNDE-MAHAIA OSATZEKO ZOZKETA.**

Maiatzaren 24ko hauteskunde-mahaiko zozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Mahaiburua, O.M.G.

1. mahaikidea, N.S.S.

2. mahaikidea, I.A.A.

Mahaiburuaren 1. ordezkoa, I.O.A.O.

Mahaiburuaren 2. ordezkoa, A.B.A.

1. mahaikidearen 1. ordezkoa, I.E.G.

1. mahaikidearen 2. ordezkoa, L.G.E.

2. mahaikidearen 1. ordezkoa, J.M.M.G.

2. mahaikidearen 2. ordezkoa, M.A.M.I.

Pedro José Alchu eta Carmelo Ayoroa sartu dira.

## **7. 2014KO KONTUAK.**

2014ko kontuen espedientea aztertu ondoren, eta kontuen batzorde berezia bezalako funtzioetan, aho batez erabaki da:

1. Aldeko txostena ematea 2014ko kontuei.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Bestalde, udaberri-uda garai honetan *Elizbideko* argia itzaltzea erabaki da, herri-argiaren gastua murrizteko. Herri-argiaren sarea aztertuko da ere, neurriko potentzia kontratatzeke.

## **8. ZENBAIT ESKAERA.**

1. I.B.M.k baimena eskatu zuen, 2 poligonoko 133 partzelan itxitura egiteko pikete eta alambrearekin. Lanak hasi direla ikusirik eta lursail komunalarekin mugatzen duela kontutan hartuz, mendizainarekin ikuskatzea erabaki da aho batez, komunala ez dela hartu egiaztatzeke.

2. P.M.E.k baimena eskatu zuen urtegiko bidean erori diren adarrak aprobetxatzeko. Aho batez erabaki da M. jaunari saltzea egurra, basozainak egin duen balorazioko prezioan, 4,03 euro (BEZa barne).

3. Besaroa Guraso Elkarteak baimena eskatu du karpa jartzeko plazan, ura eta argia hartzeko eta plaza libre egotea eskolako ikasturte amaierako besta ospatzeko. Baimena ematea erabaki da aho batez.

## **9. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko martxoaren 17koa, *Komekenea* etxea handitu eta eraberritzeko lizentzia eman ziona M.J.A.i; 2015eko martxoaren 31koa, M.V.E.ri lizentzia eman ziona, *Galantenea* etxean egur-galdara jartzeko; 2015eko martxoaren 31koa, oilaskoak gizentzeko hegazti ustiategia handitzeko obrak



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

bukatzeko epea luzatu ziona M.E.i; 2015eko apirilaren 13koa, X.I.k, “PROMOCIONES LINDUTX BAZTAN, S.L.” enpresaren izenean, eskatutako ondare-erantzukizun espedientea irekitzea erabaki zuena; 2015eko apirilaren 13koa, non erabaki zen Argi Zandueta letratuari eskatzea txosten juridikoa, ondare-erantzukizun erreklamazio hari buruz.

## **10. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Aho batez onetsi dira 2015eko baso-lanen proiektua eta aurrekontua. Diru-laguntza eskatu dela esan du idazkariak.

2. Agiri hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —F.J.S.ri eta J.A.G.ri—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baimenak larreak erretzeko —L.M.ri, J.M.G.ri eta I.B.ri—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —Udalarena, jaietarako, J.M.A., J.M.G., I.B., J.M.A. eta T.M.k—; uraren goi-hornidurako instalazioen kudeaketa, ustiapena eta mantentzea kontratatzeko lizitazio eta esleipena, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen Uraren Goi Hornidura Kudeatzeko Erakunde Autonomoak egin duena.

3. I.B.M.k bilera bat ospatzea eskatu zion Udalari, *Ameztiako* bideari buruz hartutako erabakiaien afera aztertzeko. Ameztiako bizilagun batzuekin ospatu zen bilera 2015eko apirilaren 14an eta haren berri eman dute alkateak eta Jagoba Manterolak. Bilera hartan erabaki zen bideari aplikatu behar zaion araudiari buruzko kontsultak egitea eta auzolana egitea berehala, presazkoak diren garbiketak egiteko. Jakinaren ganean geratu da Udalbatza eta erabaki da bideak arautzeko ordenantza-ereduak bilatzea, araudi bat prestatzen joateko.

4. Idazkariak jakinarazi du Marcos Erro letratuak deitu ziola, “Tresenea Apartamentos Turísticos, S.L.”ren hitzarmena eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zergan aplikatutako hobaria (bonifikazioa) aztertu ondoren eta bere gomendioa dela gauzak dauden bezala uztea. Jakinaren ganean geratu da Udalbatza.

## **11. HERRIAREN TXANDA.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 21:40ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.